

## Herrera

# Auzoa batu zuen kirol ekimena

**Pala txapelketaren bitartez auzotarrak batzea.  
Horixe izan zen herrerat batzuek duela  
17 urte izandako ideia.**

Raul Perez

**J**uan Mari Garin auzotarrak eta bere koadrilakideek antolatatu zuten lehen aldiz 1987an Mozkor Frentekideok pala txapelketa. "Auzoa murtuta zebilen, eta iruditu zitzaigun pala txapelketa jendea batzeko baliagarria izan zitekeela", dio Garinek. Urte hartan, ez zuten Herreran jokaterik izan, eta Lezoko frontoian aritu ziren izena eman zuten zortzi bikoteak. Hurrengo urtetik aurrera, Herrerako frontoian jokatu izan dute eta



urteen poderioz, parte hartzaile kopuruak gora egin du. "Pasaia edo Erreteriatik jendea etorri zaigu parte hartzeko asmoz, baina ahalegintzen gara jokalariai herreratarrak edo Herrerako bizilagunak izan daitezen". Txapelketaren etorkizunarekin ez daudela kezkatuta ziurtatu digu Juan Marik: "Hasieran, uste genuen sortzaileok ez genuela ordezkorik izango, baina oker gertatzen. Gazteak ere azkar hasi ziren lehiatzen. 23 eta 55 urte bitartekoak dira egungo parte hartzaileak".



### Goitzenak eta armarrria

Kurrusko, Mudito, Colombo... Parte hartzaileak goitizenerekin lehiatzen dira. Herreran goitizenerak erabiltzeko ohitura handia dagoela azaldu digu Garinek: "Niri, esaterako, beltza esaten didate, akaso txikitana beltzarana nintzelako. Auzotar askok ez dakite oraindik Juan Mari dela nire izena".

Mozkor Frentekideok-en armarriaz ere mintzatu zaigu Garin: "Zubiak Herrera islatu nahi zuen. Zuhaitza, Haltza, Altzako armarrarian agertzen da eta guk altzatatartat dugunez geure burua, gure armarrarian sartu genuen. Goialdeko izkinetan ikurrina eta frontoia margotuta daude".



### Jokalari onak

Esan bezala, auzotarren artean harremana sendotzeko sortu zen txapelketa. Hala ere, horrek ez du esan nahi lehia bigarren mailan dagoenik. Txapelketan oso jokalaria onek parte hartzen dutela jakinarazi digu Garinek. Hori bai, bikoteak ahalik eta parekatuen izan daitezen saiatzen dira.

Partidak larunbat goizetan jokatzen dira, eta aurtengo txapelketako finalak ekainaren 6an izango dira. Egun berezia, inondik ere. Finalen egunean frontoian jende asko biltzen dela esan digu Juan Marik: "Eserlekuak jartzen ditugu, eta horretaz gain, salda eta guzti prestatzen dugu. Hau guztia gutxi balitz, Herrerako apaizak Angelusa esaten du finalak hasi aurretik". Ondoren, bazkaria egin ohi dute auzoan.

Palazaleak bezain poteozaileak dira Mozkor Frentekide-

ok-ekoak. Poteoa, baina, pala txapelketa baino makalago dabilela esan digu Garinek: "Azken urteotan bizpahiru taberna itxi dituzte auzoan. Igan-deetan gainera, zenbait taberne jai eguna dute, eta hori dela-eta, inguruko auzoetara joaten dira koadrila asko". Kontuak kontu, txapelketaren hasierako helburua bete dela eta beraz, garai batean auzoan zegoen zatiketa gaingitu dela uste du Juan Marik. Hala bada, bejondeiela!

### Mus txapelketa

Hilaren 16an, astelehena Euzkadi Garaikarriak antolatutako mus txapelketa hasiko da. Partidak astelenero ikosten diren jokalariek parte hartuko dute, eta finalerdia eta finala apirilaren 2an izena emateko elkarrekin egotzara joan, edo 660 800 190 telefono zenbakira deitu behar da.